



## VIII. ERANSKINA – KONPROMISO-ADIERAZPENA, SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANEN JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKIONEZ (DIRULAGUNTZA-PROZESUAN ESKU HARTZEN DUTEN PERTSONAK)

Dirulaguntzen programaren izena:

Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan liburutegietako funtsak handitzea eta/edo berritzea

Espedientearen erreferentzia: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_(e)n  
\_\_\_\_\_ gisa zerbitzu ematen dudanak,

### ADIERAZTEN DUT:

Lehenengoa. Ezagutzen ditudala hauek:

1.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko Finantza Erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesasun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arazoirengatik».

2.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatuak guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

3.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko



ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c) Aurreko apartatuan aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izatea.

e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bigarrena. Ez nagoela sartuta EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat jotzen den inongo egoeratan, eta ez daukadala Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan jasotako abstenitzeko kausarik, dirulaguntzaren emate-prozeduran edo deialdiko oinarrietan aurreikusitako eskakizunak betetzen direla egiaztatze prozeduran eragina izan dezakeenik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dut ebaluazio-batzordeari edo hierarkian gorago dagoenari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo eragin lezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko kausa, eta ebaluazio-prozesuan eta prozedura honekin lotutako jarduera guztietan parte hartzeari utziko diot.

Laugarrena. Konfidentziasunez tratatuko ditut dirulaguntza-prozedura honen esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, eta ez dut era desegokian erabiliko prozedura horietan parte hartzeagatik ematen zaidan informazioa.

Bosgarrena. Ezagutzen dut interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioei, ondorio administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diedala.

\_\_\_\_\_ (e)n, sinadura elektronikoaren egunean,